

Autoebaluazioarako proba

Soldatak 1

Jarraibideak

- Autoebaluazio proba egiten hasteko sakatu “Hasi” botoia.
- Erantzun atalei.
- Autoebaluazio proba amaitzeko sakatu “Bukatu” botoia.
- Erantzun zuzenen kopurua “Score” gelaxka sakatuz agertuko da.
- Atal guztiek puntu bana balio dute.
- Sakatu “Correct” botoia erantzun zuzenak ikusteko.
- Proba hurrengo orrialdean hasten da.
- Proba egiteko denbora: 15 minutu.

Adierazburua

Ireki ezazu soldatak.gdt datu-fitxategia, soldatak esperientziaren funtzioan analizatzeko.

Erregresio lineal bakuneko eredua

1. Erregresio lineal bakuneko eredua hau da:

- (a) $soldata_i = \beta_1 + \beta_2 + u_i$
- (b) $soldata_i = \beta_1 + \beta_2 esper_i + u_i$
- (c) $soldata_i = \beta_2 esper_i + u_i$
- (d) $soldata_i = esper_i + u_i$

2. Aldagai azaldua hau da:

- (a) β_2
- (b) $esper$
- (c) u
- (d) $soldata$

3. Aldagai azaltzailea hau da:

- (a) β_2
- (b) $esper$
- (c) u
- (d) $soldata$

4. Zein da lagin-tamaina?

- (a) 5,37331 (b) 2 (c) 526 (d) 1

5. Estima itzazu ereduko koefizienteak KTA bidez. Lagineko erregresio-zuzena hau da:

(a) $\widehat{soldata}_i = 5,37331 + 0,0307219$

(b) $\widehat{soldata}_i = 0,0307219 + 0,0118111\widehat{esper}_i$

(c) $\widehat{soldata}_i = 0,0307219 + 5,37331\widehat{esper}_i$

(d) $\widehat{soldata}_i = 5,37331 + 0,0307219\widehat{esper}_i$

6. Zenbatean estimatzen da esperientzia gabeko banako baten soldata?

- (a) 5,37331 (b) 0,0307219 (c) 0,256992 (d) 0,012747

7. Zein da lagineko lehen banakoaren soldata estimatua?

- (a) 5,37331 (b) 3,10 (c) 5,434749 (d) 5,4040319

8. Zein da lagineko lehen balioaren hondarra?
(a) 10 (b) -2,33475 (c) 5,434749 (d) 5,680529
9. Zenbatean estimatzen da urte bateko esperientzia duen banako baten soldata?
(a) 5,37331 (b) 3,10 (c) 5,434749 (d) 5,4040319
10. Zenbatean estimatzen da $\hat{\beta}_2$ -ren desbideratze-tipikoa?
(a) 0,256992 (b) 3,693086 (c) 3,672972 (d) 0,0118111
11. Zein da mugatze-koefizientearen balioa?
(a) 0,010863 (b) 0,012747 (c) 0,009555 (d) 0,0118111
12. Esperientzia aldagaiaren esanguratasuna kontrastatzeko, zein da erabili behar den hipotesi hutsa?
(a) $\beta_1 = \beta_2 = 0$
(b) $\beta_1 + \beta_2 = 1$
(c) $\beta_2 = 0$
(d) $\beta_2 = 1$

13. Esperientzia aldagaiaren esanguratasuna kontrastatzeko, zein da erabili behar den estatistikoa?

- (a) 20,9085 (b) 0,256992 (c) 0,012747 (d) 2,6011

14. Esperientzia aldagaia esanguratsua da? ($\alpha = \% 5$)

(a) Bai

Ez